

Jose M^a Gorrotxategi: Gizon irekia, hiztuna eta alaia

Jose Mari Gorrotxategi betidanik izan dut adiskidea. Auzokoa da, ni baino pixka bat gaztixeagoa. Gai desberdinez kezkatua izan den gizona da. Bere ogibidean eman dituen urratsak aipagarriak dira eta bere lana ezagutarazten lan izugarria egin du. Kezka horiek udaletxeraino eraman zuten, eta bertan alde asko jorratu zituen. Tolosa eta Euskal Herriko gora-behera guztietaz kezkatu izan da. Jose Mari Gorrotxategi gizon irekia, hiztuna eta alaia da. Jendearekin harreman haundiak ditu eta denok ezagutzen dugu ber alde jator hori.

Reposteria gaiaz bi liburu eder argitaratu zituen. Hitzaurrea gustora egin nien eta aurkezpena udaletxean egin zen. Ondoren, han-hemenka ibiliaz eta asko saiatuaz, pixkanaka-pixkanaka museorako tresnak biltzen aritu zen. Interes haundiko museoa da. Bere balioa eta interesa hazten ari da eta hazi egingo da aurrerantzean ere. Hitzekin ezin da honelako tresna bilduma osatu, gogotik lan eginez baizik. Berak egin duen lan garrantzitsu hau ondo-rengoentzat ikusgai geratuko da.



Jose M. Gorrotxategi: Gizon irekia, hiztuna eta alaia (Nortasun ertzak) / Juan Garmendia Larrañaga. - En : *Galtzaundi, Tolosaldeko Herri Aldizkaria*. - Tolosa : Galtzaundi Euskara Taldea. - 95. zenb. (2000), 15. orr.